



#DenonKaleak

Genero-ikuspegia txertatuz Soraluzeko Espazio Publikoen diagnostikoa eta Berrantolaketa-Plana

Parte-hartze memoria



SORALUZeko
UDALA

Sustatzailea
Soraluzeko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES

Lan honek Eusko Jaurlaritzako
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta
Garraio Sailaren dirulaguntza jaso du



projekta
URBES
gizartea helburu

Aholkularitza teknikoa eta idazketa
Projekta Urbes

Kronograma.....	3
Koordinazio Taldeko bilerak.....	4
Akta #KT00.....	4
Akta #KT01.....	7
Akta #KT02.....	9
Teknikarien mahaia.....	10
Akta #UT1.....	10
Akta #UT2.....	11
Akta #UT3.....	13
Herritarren mahaia.....	14
Akta #HF1.....	14
Akta #EM1-2.....	15
Akta #MB1.....	16
Akta #HK1.....	17
Akta #NK1.....	18
Akta #HF2.....	19
Akta #HF3.....	20
Galdetegiak.....	23
Haurren eta Nerabeen galdetegia.....	23
Herritarren galdetegi digitala.....	24

Kronograma

HERRITARREN PARTE-HARTZEA ± 90 minutuko saioak	OTS		MARTXOA					APIRILA				MAIATZA					EKAINA		
	19 23	26 1	4 8	11 15	18 22	25 29	1 5	8 12	15 19	22 26	29 3	6 10	13 17	20 24	27 31	3 7	10 14	17 21	
HF - Herritarren Foroa: 3 saio. HF1 - Aurkezpena eta prestakuntza: Genero-ikuspegia hirigintzan. HF2 - Partaidetzazko lanketa: Diagnostikoa eta proposamenak. HF3 - Planaren eta Aurreproiektuen zirriborroei ekarpenak.				1	2												3		
EM - Emakumeen Mahaia (Zabaltzen-Sartu): 3 saio. EM1 - Aurkezpena eta prestakuntza: Genero-ikuspegia hirigintzan. Saio hau 10:00etan Zabaltzen programakoekin EM2 - Partaidetzazko lanketa: Diagnostikoa eta proposamenak. EM2=HF2 Planaren eta Aurreproiektuen zirriborroei ekarpenak: EM3=HF3				1													3		
HK - Haurren Kontseilua (LH 3-6): 2 saio. HK1 - Aurkezpena eta galdetegia prestatzea. HK2 - Planaren eta Aurreproiektuen zirriborroei ekarpenak: HK2=HF3			1														2		
NK - Nerabeen Kontseilua (DBH): 2 saio. NK1 - Aurkezpena eta galdetegia prestatzea. NK2 - Planaren eta Aurreproiektuen zirriborroei ekarpenak: NK2=HF3			1														2		
MB Mahai Berezia (Adinekoak): 3 saio MB1 - Aurkezpena eta diagnostiko ibilaldia. MB2 - Partaidetzazko lanketa: Diagnostikoa eta proposamenak: MB2=HF2 MB3 - Planaren eta Aurreproiektuen zirriborroei ekarpenak: MB3=HF3				1	2												3		
Galdetegi digitala: 3 aste. Herriguneko espazio publikoak: Diagnostikoa eta proposamenak.																			
UDALAREN PRESTAKUNTZA ETA PARTE-HARTZEA ± 120 minutuko saioak	OTS		MARTXOA					APIRILA				MAIATZA					EKAINA		
	19 23	26 1	4 8	11 15	18 22	25 29	1 5	8 12	15 19	22 26	29 3	6 10	13 17	20 24	27 31	3 7	10 14	17 21	
KT - Koordinazio Taldea: 3 saio presentzial. KT1 - Partaidetza prozesua eta komunikazio-ekintzak zehaztea. KT2 - Planaren eta Aurreproiektuen zirriborroei ekarpenak.		1														2			
UT - Udaleko Teknikariak: 3 saio. UT1 - Aurkezpena eta prestakuntza. Udalaren proiektuak aztertu. UT2 - Diagnostikoa eta proposamenak. UT3 - Planaren eta Aurreproiektuaren zirriborroei ekarpenak.				1	2													3	
UO - Udaleko Ordezkarien Mahaia: 3 saio UO1 - Aurkezpena: HF1 saioan txertatu UO2 - Partaidetzazko lanketa: HF2 saioan txertatu UO3 - Zirriborroei ekarpenak: HF3 saioan txertatu				1	2													3	

Saio eskusiboa

Saio partekatua

Koordinazio Taldeko bilerak

Akta #KT00

Proiektua Kodea	Soraluzen Denon Kaleak #KT00
Jarduera mota	Koordinazio Taldearen osaketa eta aurrelanak.
Data eta orduak Lekua	<ul style="list-style-type: none">2024/01/23, 15:10-16:30Soraluzeko Udaletxea.
Partaideak (+rolak)	<ul style="list-style-type: none">Unai Larreategi, alkatea.Ione Alberdi, Gobernu Taldeko zinegotzia (Hirigintzako batzordekidea).Zinegotzia.Lur Etxeberría, Udal Aparejadorea.Yoana Azpitarte, Parekidetasun teknikaria.Ana Oregi, Gizarte Zerbitzuetako teknikaria.Teknikaria.Patxi Galarraga, Projekta Urbes.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">Prozesua eta egutegia diseinatzea.
Erabilitako materialak	<ul style="list-style-type: none">Prozesurako eta egutegirako zirriborroa.
Landutako gaiak	Parte-hartze prozesuaren inguruan: <ul style="list-style-type: none">Gutxi gora-beherako datak.Partaidetza-taldeak: aukerak, zailtasunak.Parte-hartze metodologia desberdinak. Proiektuan bereziki kontuan har daitezkeen espazio eta eremuak: <ul style="list-style-type: none">Espazio txikiak (hirigintza taktikoa). Adibidez, ur-txorroen gunea egokitu.Ibaiarekin lotura, adibidez Plaza Zaharrea edo Santa Ana 4-40 tartean.SAPA aukeragune gisa.Lersundi kiroldegiaekin lotzeko Juntura egiten ari den proiektua.Olaldea-Txurruken.
Hartutako erabakiak	<ul style="list-style-type: none">Koordinazio-taldearen osaketa:<ul style="list-style-type: none">Gobernu Taldeko ordezkaria(k).Teknikariak: Hirigintza eta Obrak, Berdintasuna, Komunikazioa eta Herritarren partaidetza.Projekta Urbes.Egutegiaren ingurukoak: ikus #E03.
Esleitutako zereginak (+nori)	<ul style="list-style-type: none">Projekta: Athloneko Maialenekin hitzegin, "Goazen Soraluzeko" ibilaldi bat adinekoen parte-hartzea bideratzeko baliagarri izan daitekeen ala ez argitzeko.
Ebatzi gabeak	<ul style="list-style-type: none">Mahai Bereziak: bata Haurren Kontseilua izan daiteke, bestea (balego) ez dago argi.

Bileran landutakoak

Herritarren parte-hartzea prozesuan

- **HF - Herritarren Foroa:** Herritarrei deialdi zabala egitea proposatzen da, bai eta antolatuta dauden herriko elkarteei zuzenean gonbidatzea ere. Saioetan partaideak taldetan antolatzen ditugu: azpitalde bakoitzean partaideek zerbait komunean dutelako (hizkuntza, bizitokia, etab.), guztiek iritzia emateko aukerak areagotzeko, bilduko diren ekarpenak bere egileen ezaugarrien edo interesen arabera banakatzeko... Azpitalde hauetaz gain, prozesuan antolatuko diren hainbat "Mahai" Herritarren Foroan txertatzea aurreikusten da, bigarren eta hirugarren saioan. Azpitalderen batean jende gehiegi badago, orokorrean gizonak eta emakumeak banantzea gomendatzen da.
- **EM - Emakumeen Mahaia:** Erreferentziazko talderik balego, harekin harremanean jartzea gomendatzen da, proiektua azaltzeko eta prozesuan inplikatzeko. Honetaz gain, hainbat espaziotan gonbidapen zuzenak egitea gomendatzen da: adibidez, proiektuaren inguruan interesa, jakintza edo esperientzia izan dezaketen emakume zehatzei; edo emakumezko taldeei (kirolekoak adibidez); edo eta emakumeen presentzia oso nabarmena duten elkarteei. Lehenengo saioa beraiekin bakarrik egingo litzateke, eta erantzunaren zein interesaren arabera, hurrengo bietarako bi aukera daude: bata, banandutako prozesu batekin jarraitzea, eta bestea, gainontzeko Mahai Bereziak egitea proposatu den bezala, Herritarren Foroan txertatzea berariazko Mahai gisa.
- **Mahai Bereziak.** Aurrekoetz gain, proiektu honen inguruan behar edo interes bereziak izan ditzakeen "Mahai" bat edo bi gehiago sortzea aurreikusten da. Lehenengo saioa propio talde bakoitzarekin egitea gomendatzen da (edukiak eta metodologiak talde horien ezaugarrietara egokituz), eta hurrengo saioetan, aldiz, Herritarren Foroan (HF) txertatzea berariazko Mahai gisa. Honekin aniztasuna ikusarazten da, ekarpen konplexuagoak sustatzen dira eta "Herri proiektuaren" izaera indartzen da.
 - **HK - Haurren Kontseilua.** Lehenengo saioa Kontseiluak Martxoan egingo duena aprobetxatuz egingo litzateke (saio bikoitza, LH batetik eta DBH bestetik); eta bigarrena, HF3 saioan txertatzea gomendatzen da.
 - **Beste Mahai Bereziarentzako adibideak**
 - **AM - Adinekoen Mahaia?** Lehenengo saioa "Goazen Soraluze"ko ibilaldi bat baliatuz egin daiteke (Maialen Athlonekin hitzegin? Itxaropenarekin ere hitzegin?); eta hurrengo bietan HF2 eta HF3 saioetan txertatzea gomendatzen da. "Soraluze Lagunkoia" prozesu/talderik ez dago, ezta?
 - **GM - Gurasoen Mahaia?** Haurreskolako eta HHko gurasoekin. Lehenengo saioa eskola batean egin daiteke (Haurreskola, Atxolin); eta bigarrena, HF3 saioan txertatzea gomendatzen da. Emakume etorkinak (ama direnak) modu neutroan erakartzeko modua izan daiteke?
 - **EM - Etorkinen Mahaia?** Lehenengo saioa "Zabaltzen" baliatuz egin daiteke; eta hurrengo bietan HF2 eta HF3 saioetan txertatzea gomendatzen da.
 - **KM - Kontseiluaren Mahaia?** Herrian Planeamenduko Aholku Kontseilurik balego. Lehenengo aurkezpen saioa Kontseiluaren ohiko bilera bat baliatuz egin daiteke; eta hurrengo bietan HF2 eta HF3 saioetan txertatzea gomendatzen da.
- **Galdetegi digitala.**

Udalaren prestakuntza eta parte-hartzea prozesuan

- **KT - Kudeaketa Taldea.** Gobernu Taldeko ordezkari batek (1), Hirigintza eta (3) Berdintasun alorretako arduradun teknikoek (2, 3), Udalean komunikazioaz eta herritarren parte-hartzeaz arduratzen denak (4), eta PROJEKTako aholkulari batek (5) osatzea gomendatzen da.
- **UT - Udaleko Teknikariak.** Gutxienez, Hirigintzan, Mugikortasunean eta Berdintasunean ardura teknikoa duten langileek osatzea gomendatzen da. Prestakuntzarako eta parte-hartzeko espazioa izanik, ahal bada beste hainbat sailetan dihardutenek parte-hartzen saiatzea ere proposatzen da. Adibidez: Ongizate Saila, Udaltzaingoa, Gazteria/Hezkuntza, Kultura, Toki garapena, Kirolak...
 - **Herritarren Foroarekin harremana:** UT taldea izango litzateke prozesu osoan zehar modu independentean lan egingo lukeen bakarra, Herritarren Foroan txertatu gabe.
- **OM - Udaleko Ordezkarien Mahaia.** Gobernu Taldeko zein Oposizioko ordezkari politikoek osatzea gomendatzen da.
 - **Herritarren Foroarekin harremana:** lehenengo saioa ez, baina bigarrena eta hirugarrena, Herritarren Foroan txertatzea proposatzen da.

Bi ohar egutegiari buruz

- **Aste bakoitzeko saio guztiak egun berean konzentratzea proposatzen da:** PROJEKTako kideak goizetik iluntzera herrian izango lirateke, edozein bilera/elkarrizketa/lanketa egiteko prest.
- Martxoak 20an **Korrika** pasako da 11:15tan.

Akta #KT01

Proiektua Kodea	Soraluzen Denon Kaleak #KT01
Jarduera mota	Koordinazio Taldeko 1. Bilera.
Data eta orduak Lekua	<ul style="list-style-type: none">2024/02/19, 10:00-11:30Soraluzeko Udaletxea.
Partaideak (+rolak)	<ul style="list-style-type: none">Unai Larreategi, alkatea.Maite Quintanilla, zinegotzia.Lur Etxeberria, Udal Aparejadorea.Patxi Galarraga, Projekta Urbes.Miren Vives, Projekta Urbes.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">Partaidetza prozesua eta komunikazio-ekintzak zehaztea
Erabilitako materialak	<ul style="list-style-type: none">Prozesurako eta egutegirako zirriborroa.
Landutako gaiak	<p>Parte-hartze prozesuaren inguruan:</p> <ul style="list-style-type: none">Datak.Partaidetza-taldeak: Herritarren Foroa gaionetzeko mahaiekin elikatzeko proposamena.Emakumeen Mahaia emakume talde ezberdinekin landu beharra: alde batetik "Zabaltzen" eta bestetik "Jabetze eskola".Haurren eta Nerabeen Kontseiluen parte-hartzea.Teknikarien Mahaiaren osaketa.Parte-hartze metodologia. <p>Proiektuan bereziki kontuan har daitezkeen espazio eta eremuak:</p> <ul style="list-style-type: none">Ur-txorroten gunea egokitu.Ibaiarekin lotura, Plaza Zaharrean.Plaza Zaharreko aterperako aukerak.SAPA aukeragune gisa.Lersundi kiroldegiarekin lotzeko Juntura egiten ari den proiektua.
Hartutako erabakiak	<ul style="list-style-type: none">Haurren eta Nerabeen Kontseiluekin saio bana egingo da beraiei zuzendutako galdetegia prestatzeko. Ondoren, ikastetxean lanketa proposatuko dute beraiek eta Herritarren Foroan parte hartzeko gonbidapena luzatuko zaie (HF3-an)."Zabaltzen" programako emakumeekin martxoak 12-an saio berezia egitea, goizeko 10:00etan, beraiek elkartzen direnean."Jabetze Eskola"-ko partaideekin saioa martxoak 12-an 18:30etan egitea, "Hirigintza eta Generoa" gai hartuta. Izenburu erakargarriagoa pentsatu behar da.Teknikarien Mahaiaren osaketa: Hirigintza (Xabi, Lur), Berrintasuna (Yoana), Udaltzaingoa (Eulogio), Sustapena-Kultura... (Mikel), Kiroldegiko arduraduna (...)Egutegiaren ingurukoak: ikus #E04.

Esleitutako zereginak (+nori)	<ul style="list-style-type: none"> • Projekta: Athloneko Maialenekin “Goazen Soraluzeko” ibilaldia itxi martxoak 19rako. Herritarren Foroa etortzeko gonbidapena luzatu. • Guztiok: Prozesuari izen erakargarria jartzea, “genero” hitzik gabe, aukeran. Horretarako Projektatik zenbait testu eta irudi bidaliko zaizkie udal-arduradunei.
Ebatzi gabeak	<ul style="list-style-type: none"> • Maitek, Yoana eta Jabetze Eskolako arduradunarekin batera, martxoak 12-ko aurkezpen saioa mistoa izan daitekeen hausnartuko du. Horrela balitz, hau litzateke prozesuaren abiapuntua.
Hurrengo bilera	<ul style="list-style-type: none"> • Maiatzak 31

#E04

MARTXOA				
4	5	6	7	8
	9:30 Nerabeen kontseilua	9:00 Haurren kontseilua		
11	12	13	14	15
	18:30 Herritarren Foroa - Aurkezpena (HF1)	12:30 Teknikarien Mahaia (T01)		10:00 - 12:00 Emakumeen Mahaia Zabaltzen-Sartu (EM1-EM2)
18	19	20	21	22
	10:00 Adinekoekin ibilaldia 12:30 Teknikarien Mahaia (T02) 18:30 Herritarren Foroa - Diagnostikoa (HF2)			

Akta #KT02

Proiektua Kodea	Soraluzen Denon Kaleak #KT02
Jarduera mota	Koordinazio Taldeko 2. Bilera.
Data eta orduak Lekua	<ul style="list-style-type: none">• 2024/05/31, 10:30-12:00• Soraluzeko Udaletxea.
Partaideak (+rolak)	<ul style="list-style-type: none">• Unai Larreategi, alkatea.• Maite Quintanilla, zinegotzia.• Lur Etxeberria, Udal Aparejadorea.• Patxi Galarraga, Projekta Urbes.• Miren Vives, Projekta Urbes.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Hurrengo Herritarren Fororako deialdia prestatzea eta egingo diren proposamen esparruak definitzea.
Erabilitako materialak	<ul style="list-style-type: none">• Diagnostiko zirriborroan oinarritutako lekuen zerrenda eta egutegia.
Landutako gaiak	Parte-hartze prozesuaren inguruan: <ul style="list-style-type: none">• Datak zehaztea.• Partaidetza-taldeak: Herritarren Foroa gaionetzeko mahaiekin elikatzeko proposamena.• Emakume migratuek ere Forora etortzeko aukera.• Haurren eta Nerabeen Kontseiluen parte-hartzea Foroan.• Parte-hartze metodologia.
Hartutako erabakiak	5 esparru landuko direla erabaki da: <ul style="list-style-type: none">• SAPA• Estaziño• Frontoi ingurua• Plaza Zaharra+Erregetxe+Ur-txorrotak• Trafikoa baretzeko aukerak

Teknikarien mahaia

Akta #UT1

Proiektua Kodea	Soraluzen Denon Kaleak #UT1
Jarduera mota	Udal-teknikariekin aurkezpen saioa
Data eta orduak Lekua	<ul style="list-style-type: none">2024/03/13, 12:30-14:00Tolarekuan
Partaideak (+rolak)	<ul style="list-style-type: none">Xabier Rezabal, udal-arkitektoa.Eulogio Mancebo, udaltzainburuaOihane ---, udaltzaina.Mikel Leunda, Kultura, haur, gazteri eta euskara teknikaria.Maria Gallastegi, Kirol teknikaria.Miren Vives, Projekta Urbes.Patxi Galarraga, Projekta Urbes.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">Gaiaren aurkezpena egitea.
Erabilitako materialak	<ul style="list-style-type: none">labur.eus/SOR1
Landutako gaiak	<ul style="list-style-type: none">Plataforma bakarraren arabera, abiadura muga 20 Km/orduko den arren, ez da errespetatzen.3.000 biztanle ditugu, baina 3.000 ibilgailu inguru ere.Herri barruko joan-etorriak ekidin behako lirateke.Aparkaleku mugatua jarri da erdigunean, 1,5 orduko mugarekin. Bete egiten da.Lersundiko eraikina kultur erabilerarako nahi da, baina baita inguruko irisgarritasuna hobetzeko ere (padel pista, adibidez).Ibai-ertzeko pasealekua osatzea oso interesgarria litzateke.Erregetxe azpian aterpe bat eraikitzea pentsatzen ari dira, komun publikoak, igogailua eta espazio estalia ahalbidetuko dituen.

Akta #UT2

Proiektua Kodea	Soraluzen Denon Kaleak #UT2
Jarduera mota	Udal-teknikariekin diagnostiko eta proposamen lanketa-saioa
Data eta orduak Lekua	<ul style="list-style-type: none">• 2024/03/19, 12:30-14:00• Udaletxean
Partaideak (+rolak)	<ul style="list-style-type: none">• Xabier Rezabal, udal-arkitektoa.• Lur Etxeberria, udal-aparejadorea.• Mikel Leunda, Kultura, haur, gazteri eta euskara teknikaria.• Maria Gallastegi, Kirol teknikaria.• Miren Vives, Projekta Urbes.• Patxi Galarraga, Projekta Urbes.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Aurkezpen saioan aipatutako gaiak arlo bakoitzean duten aplikazioa, etorkizuneko egitasmoie begira.
Erabilitako materialak	<ul style="list-style-type: none">• labur.eus/SOR2
Landutako gaiak	<ul style="list-style-type: none">• Estaziño kaleko jolas parkeari buruz: Udaltzainak soilik sarrera-irteera orduetan. Kimu-bat-ek egindako jolasgunea konpontzera doaz: asko erabiltzen da baina eremu hotza eta hezea da. Bidegurutzeta da, ibilgailu asko ibiltzen dira bertan, abiadura handian, arriskua sortuz.• Ikastetxeko jolasgunea igandeetan itxita dago. Eskolako aterpea ez da gehiegi erabiltzen. Igogailua jarriko da eraikinaren beharrei erantzuteko eta bide batez, goiko patioa irisgarri bilakatzeko. Ekainean hasiko dira lanak. Bi eskaileren arteko espazioa murriztuko da horretarako.• Ur-txorroten parkea osatu gabe dago: egonelekuak eta itzalak falta dira. Lurzorua oso latza da eta belar artifiziala jartzea baloratu da.• Igogailu berria aurreikusita dago, Gabolatsetik Loraldera, gaur egungo eskaileren ondoan.• Frontoi ondoko plaza aukera lekua da, gaur egun ibilgailuak aparkatzen duten arren. Arratsaldeko 15:00ak arte aparkatzea libre da, baina aukera hori kentzea eskatu da, Haurreskolakoen aldetik (?). Aparkatzeko aukera honek asko baldintzatzen du ingurua.• Zubian eta Plaza Zaharreen ere 15:00ak arte aparkatu daiteke.• Erregetxeko aparkalekuak asko baldintzatzen ditu ibilgailuen ibilbideak.• Udaletxe ondoko bidegurutzeta oso arriskutsua da, jendearen topalekua izateaz gain ibilgailuen abiadura ere handia da. Duela urte batzuk debekatu egin zen herrigunea hortik gurutzatzea.• Kalistenia parkea, Txurrukenen jarri zena, ez dago leku onenean, ez baitago bidegorriarekin konektatuta eta erabilera oso espezifikoa baitu.• Kiroldegiko terrazan gauza ezberdinak probatu dira baina ez dira asmatzen ari: lehen multikantxa bat zegoen. Terraza izaerak asko baldintzatzen du erabilera.• Padel pista estaltzeko eskatu da, erabilgarriagoa izan dadin. Batipat gizonak erabiltzen dute, emakumeek bai, baina gutxiago.• Kiroldegiko frontoiak erabilera gehiegi ditu bere gain: hockey, multikirola, pelota... Ordu-tegi guztia hartuta du.• SAPA-rako aurreikusi diren jardueri buruz hitz egin da. Bere dimentsioak direla eta (luzea eta estua), ez da oso egokia kirol estandarizatueterako. Patinatzeko pista gisa erabiltzeko erabilgarria izan daiteke, adibidez.

- **Osintxu bidetako ekipamenduak:** bizikletak garbitzeko puntu bat jarri zen, baita parke biosasungarri bat ere.
- **Atxuri kalean,** 20 Km/ordukoko muga dagoen arren, oso abiadura handian ibiltzen dira ibilgailuak. Plataforma bakarra eraikitzea oso lagungarria izan da irisgarritasunari dagokionez, baina abiadura murrizteko bestelako jarduketak egin beharko lirateke, diseinuari eragingo diotenak.
- **Gabolats kalean** ere ibilgailuak abiadura handian ibiltzen dira.
- **Ezozikaleko biribilgunea** kenduko da, proiektua eginda dago. Honek bidegurutzeko zirkulazioa erraztuko du eta Ezozikaleko ezaugarriak hobetuko dira.
- **Lersundiko jarduketek** ahalbidetu dezaketena: bertan musika eskola eta gazte lokalak jarriz gero, 0-4 urtekoen ludoteka gaur egun musika eskola dagoen lokalera pasa daiteke.

Akta #UT3

Proiektua Kodea	Soraluzen Denon Kaleak #UT2
Jarduera mota	Udal-teknikariekin diagnostiko eta proposamen lanketa-saioa
Data eta orduak Lekua	<ul style="list-style-type: none">• 2024/06/11, 12:30-14:00• Udaletxean
Partaideak (+rolak)	<ul style="list-style-type: none">• Xabier Rezabal, udal-arkitektoa.• Lur Etxeberria, udal-aparejadorea.• Mikel Leunda, Kultura, haur, gazteri eta euskara teknikaria.• Maria Gallastegi, Kirol teknikaria.• Yoana Azpitarte, Berdintasun teknikaria.• Miren Vives, Projekta Urbes.• Patxi Galarraga, Projekta Urbes.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Landutako proposamenei ekarpenak egitea.
Erabilitako materialak	<ul style="list-style-type: none">• labur.eus/SOR4
Landutako gaiak	<p>SAPA Eraikinaren funtzio posibleei buruz zalantza asko dauzkate.</p> <ul style="list-style-type: none">• Gune estalia eta handia da, baina hormetan eta estalkian erabili den materialak (polikarbonatoa) ez du akustika ona bermatzen. Hori dela eta, kultur jardueretarako ez dela oso erabilgarria izango aipatu da.• Festetan zer erabilera izan ditzakeen ere hausnartu da: puzgarriak jartzeko, edo eta herri-bazkariak egiteko erabilgarria izan daiteke. Baina, komuna falta du. <p>Komun publikoei buruz: herrian jarri beharko lirateke, adibidez Erregetxen, Osakidetza ondoko biltegian. Horretaz gain, beste zenbait lekutan ere jartzea beharrezkoa iruditzen zaie.</p> <p>Frontoia Oro har, proposamena bat dator teknikarien iritziekin. Egin diren zenbait ekarpen:</p> <ul style="list-style-type: none">• Musika Eskola dagoen eraikinak ez du barruan igogailua jartzeko aukerarik, beraz kanpoan jartzea proposatu da, bide batez Alejandro Calonge Etxetaldeko zenbait erainetara sarbidea erraztuz.• Institututik esparru honetako aparkalekuak kentzeko eskatu dute.• Frontoiko lurra eraberritu beharko litzateke: erabilera handia du eta zaharkitua dago, leundu beharra dauka.• Frontoi Larrosa, irisgarria ez den arren, espazio hauen osagarri bihurtzea proposatu da. Adibidez, skate-park jartzeko leku egokia izan daiteke edo eta egonleku erakargarri bat. Oztopo bat etxebizitza askotatik ikusgai dagoela izan daiteke.• Multikantxa bat herrian jartzea beharrezkoa iruditzen zaie, baina non? Zaila da azalera nahikoa duen leku egokia bilatzea. <p>Trafikoa Proposamen positiboki baloratu da.</p>

Herritarren mahaia

Akta #HF1

Proiektua Kodea	Soraluzen Denon Kaleak #HF1
Jarduera mota	Herritarren Foroa_ Aurkezpen saioa
Data eta orduak Lekua	<ul style="list-style-type: none">• 2024/03/12, 18:30-20:00• Kalebarren 8ko lokalean
Partaideak (+rolak)	<ul style="list-style-type: none">• 8 emakume• 5 gizon• Unai Larreategi, alkatea.• Maite Quintanilla, zinegotzia.• Patxi Galarraga, Projekta Urbes.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Gaiaren aurkezpena egitea.
Erabilitako materialak	<ul style="list-style-type: none">• labur.eus/SOR1
Landutako gaiak	--



Argazkia: plaentxia.eus

Akta #EM1-2

Proiektua Kodea	Soraluzen Denon Kaleak #EM1-2
Jarduera mota	Emakumeen mahaia_ Aurkezpen eta diagnostiko saioa
Data eta orduak Lekua	<ul style="list-style-type: none">• 2024/03/15, 10:00-12:00• Kalebarren 8ko lokalean
Partaideak (+rolak)	<ul style="list-style-type: none">• 11 emakume• Uxue---, gizarte langilea.• Miren Vives, Projekta Urbes.• Argi Yeregi, Projekta Urbes.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Gaiaren aurkezpena egin eta lehen fitxak betetzea.
Erabilitako materialak	<ul style="list-style-type: none">• labur.eus/SOR1• labur.eus/SOR-GF1
Landutako gaiak	<ul style="list-style-type: none">• Haurren zaintza, eguraldi txarrarekin etxetik irteteko aukera gutxi daudela diote, parke estalirik ez dagoelako.• Trafikoaren arriskuak eta honek ekarritako haurren askatasun falta (mezkitara, futbol zelaira edo ludotekara bidean adibidez).• Nerabeentzat espazio falta.• Emakumeen etxe baten falta.• Garraio publikoan arazoak: geltokiak ez dira konstanteak eta nahasmena sortzen du.• Eibarrera oinez joateko aukerarik ez dago.• Oinezkoen bide asko hezetasunagatik irristakor bihurtzen dira eta erorketa arriskua asko handitzen da.• Eskolako parkera igotzeko igogailua asteburutan itxita dago.• "Inazibar"(Osintxu bidean) parkeko sarrera txarra, banku, mahai eta zakarrontzi falta.• Kotxe asko eta aparkaleku gutxi.• Eskolako sarreran espazio, banku eta aterpe falta.



Akta #MB1

Proiektua Kodea	Soraluzen Denon Kaleak #MB1
Jarduera mota	“Goazen Soraluze”-koekin diagnostiko saio ibiltaria
Data eta orduak Lekua	<ul style="list-style-type: none">• 2024/03/19, 10:00-12:00• Herrian zehar
Partaideak (+rolak)	<ul style="list-style-type: none">• Athlon-eko bi kide.• Gizon 2• Emakume 1• Patxi Galarraga, Projekta Urbes.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Ibilaldian zehar Soraluzeko kaleei eta espazio publikoei buruz hitz egitea, memoriaren eta gaur egungo egoeraren ikuspegitik.
Erabilitako materialak	---
Landutako gaiak	<ul style="list-style-type: none">• Kale-bizitza lehen eta orain: desberdintasunak eta oztopoak.• Irisgarritasuna.• Haurren autonomia.• Memoriaren arrastoak kaleetan.



Akta #HK1

Proiektua Kodea	Soraluzen Denon Kaleak #HK1
Jarduera mota	Galdetegia prestatzeko Haurren Kontseiluarekin bilerak
Data eta orduak Lekua	<ul style="list-style-type: none">• 2024/03/06, 9:00-10:00• Tolarekuan
Partaideak	<ul style="list-style-type: none">•
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Herriko haur eta gazteek herriko espazio publikoei buruz dituzten iritzia jasotzeko erabiliko den galdetegia diseinatzea eta probatzea.
Erabilitako materialak	<ul style="list-style-type: none">• Galdetegi proposamena.
Emaitzak	<ul style="list-style-type: none">• Galdetegi proposamenerako lehen galdera horrela formulatuta zegoen: “Adostu zuentzako 4 leku onenak (aire librean)”. Saioan zehar, “Soraluzen “aire librean” edo kanpoan dauden leku onenak” jartzea erabaki zen, garbiago gera zedin.



Akta #NK1

Proiektua Kodea	Soraluzen Denon Kaleak #NK1
Jarduera mota	Galdetegia prestatzeko Nerabeeen Kontseiluarekin bilerak
Data eta orduak Lekua	<ul style="list-style-type: none">• 2024/03/05, 9:30-10:30• Tolarekuan
Partaideak	<ul style="list-style-type: none">•
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Herriko haur eta gazteek herriko espazio publikoei buruz dituzten iritzia jasotzeko erabiliko den galdetegia diseinatzea eta probatzea.
Erabilitako materialak	<ul style="list-style-type: none">• Galdetegi proposamena.
Emaitzak	<ul style="list-style-type: none">• Galdetegian denbora aldagaia txertatzea erabaki zen, zenbait leku, atseginak izan arren, ez bait dituzte gehiegi erabiltzen. Beraz, honako galdera erantsi zitzaion galdetegiari: “Adostu taldean: zenbat denbora pasatzen duzue leku bakoitzean? Gutxi-Nahiko-Asko”



Akta #HF2

Proiektua Kodea	Soraluzen Denon Kaleak #HF2
Jarduera mota	Diagnostiko saioa: Soraluzeko espazio publiko esanguratsenak aipatu eta genero-ikuspegitik analizatu.
Data eta orduak Lekua	<ul style="list-style-type: none">• 2024/03/19, 18:30-20:30• Kalebarren 8ko lokalean
Partaideak (+rolak)	<ul style="list-style-type: none">• Azpitaldeak:<ul style="list-style-type: none">– Ordezkeri politikoak, mahai mistoa: emakumeak (4), gizonak (2).– Emakumeak 1 (5)– Emakumeak 2 (5)– Gizonak (5)• Miren Vives, Projekta Urbes.• Patxi Galarraga, Projekta Urbes.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Diagnostikoa fitxak osatu eta partekatzea
Erabilitako materialak	<ul style="list-style-type: none">• labur.eus/SOR2• labur.eus/SOR-GF1
Landutako gaiak	<p>Taldeka fitxak osatu dituzte, gehienez 5 lekuri buruz hitz egiteko aukera zutelarik. Lau taldeei SAPA ri buruz fitxa bat betetzeko eskatu zaie. Ondoren jaso da aipatutako zenbait gairen laburpen bat:</p> <p>SAPA</p> <ul style="list-style-type: none">• Kezkatzen ditu baloiaren erabilerak espazio guztia hartzeak, neguko hotzak edo zubiaren irisgarritasun faltak.• Aldiz, aukera bikaina da aterpedun espazio hau jarduera askotarako aukera izango delako. <p>Estaziño</p> <ul style="list-style-type: none">• Irisgarritasun, segurtasun eta argiztapen falta. Leku alaia baina arriskutsua. Aterpea behar du. <p>Kiroldegi gaina</p> <ul style="list-style-type: none">• Zaintza naturalik gabeko gunea. Skate-park oso utzia, padel pista estali beharra. <p>Ur-txorroak</p> <ul style="list-style-type: none">• Urtaroen arabera erabilera deskonpentsatua. Zuhaitzik eta itzalik gabeko eremua. <p>Osintxurako bidea</p> <ul style="list-style-type: none">• Irisgarritasun eta ekipamendu gabeziak. Komuna beharrezkoa da. <p>Iturburu pasealekua</p> <ul style="list-style-type: none">• Topaketa sustatzeko erakargarriagoa izatea behar du. Ibaiarekin harremana berreskuratzeko aukera. Lorategiak jarri, hormigoia kendu. <p>Mugikortasuna</p> <ul style="list-style-type: none">• Oinezkoen segurtasuna eta erosotasuna lehenesteko ohiturak aldatu beharra dago. Kotxeak azkarregi dabilta oro har.• Oinezko eremuak ondo daude, baina urriak dira. Espaloien tamaina zaindu beharra dago. <p>Plaza Zaharra</p> <ul style="list-style-type: none">• Karpak neguko erabilera errazten du. Kotxeak goizetan, ez da erabat oinezkoa. Terrazen okupazioa gehiegizkoa da.

Plaza Berria

- Eserleku gutxi daude eta garbiketa sarriagoa behar du.

Komun publikoak

- Ez dira irisgarriak, ez seguruak, ez garbiak.

Eliza ondoko eskailerak

- Eskolara bide azkarrena, baina haur-orgatilekin ez erabilgarria.



Akta #HF3

Proiektua Kodea	Soraluzen Denon Kaleak #HF3
Jarduera mota	Herritarrei lanketa azaldu eta proposamenei ekarpenak jaso
Data eta orduak Lekua	<ul style="list-style-type: none"> • 2024/06/10, 18:30-21:00 • Herri Antzokian
Partaideak (+rolak)	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeak <ul style="list-style-type: none"> – A taldea 3 emakume/neska 2 gizon/mutil – B taldea 5 emakume – C taldea 2 emakume 1 gizon – D taldea 3 emakume – E taldea 3 emakume/neska 2 gizon – F taldea 5 emakume 3 gizon – G taldea 2 gizon/mutil – GUZTIRA 21 emakume/neska 10 gizon/mutil • Miren Vives, Projekta Urbes. • Patxi Galarraga, Projekta Urbes.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Proposamenei ekarpenak jasotzea
Erabilitako materialak	<ul style="list-style-type: none"> • labur.eus/SOR4
Landutako gaiak	<p>Lanketa talde bakoitzak bere aldetik egin du. Saioaren azken tartean egindako hausnarketak partekatu dira.</p> <p>SAPA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jolaserak leku libre gisa ikusten dugu: dantzarako, bazkarietarako... • Ibai-ertzean pasealekua ere izango du. • Komunak jartzea beharrezkoa izango da. • Eserlekuak ere jarri beharko dira, guztia jolaserako eremu libre gisa ez. • Iturria eta gaur egun dagoen eserleku luzea ere hor daude. • Jolas-parkea jartzea proposatzen dugu txikientzat eta kirol-kantxa haur handiagoentzat. • Azokarako lekua aurreikustea ondo legoke. • Eserleku, iturri eta komuna beharrezkoak dira. <p>Estaziño</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ezinbestekoa da abiadura murrizteko estrategiak erabiltzea: errai zuzenak ekidin, sakanguneak, zoladuren testurak... • Goiko eta beheko parkeak elkartzea gustatuko litzaiguke. • Goiko parkea irisgarria izatea nahi genuke. Aukerak analizatu. <p>Frontoia</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aparkalekuan hondarra, belarra eta zuhaitzak jartzea proposatzen dugu, haur txikiek jolasteko. • Hauen ondoan kolunpioak jartzea ere ondo legoke. • Irakasleentzat eserlekuak jartzea komeni da. • Ez dugu kotxerik nahi frontoi inguruan • Frontoiko grafitiak kentzea proposatzen dugu. • Txikientzat ondo ikusten dugu proposamena. • Berdetzea ere positiboki baloratu dugu. • Erdigunea kirol-kantxak okupatzen duenez, neska nerabe eta haurrentzat elementuak eta eremuak jartzea gustatuko litzaiguke, aukera bakarra ertzetan egotea izan ez dadin.

- Topaketak sustatzeko altzari ez arruntak jartzea gustatuko litzaziguke.
- Frontoi Arrosa aukera leku bat da, irisgarria ez den arren. Bizilagunen begibistan dago, agian horregatik ez du arrakastarik.
- Elizpea, egun ilunetan, oso leku iluna da. Argiztapena ona da.

Plaza Zaharra + Erregetxe + Ur-txorrotak


- Hiru maila hauetaz gain ibai-ertza ere kontuan hartu behar da.
- Foru Aldundiko Ondare sailak zer dio eskailerak eta iturria kentzeari buruz?
- Proposamen hau gauzatzeak kostu ekologiko handia du, kontuan hartzea eskatu da.
- Erregetxe azpiko eremuko argiztapena zaindu beharko da.
- Erregetxe azpian komuna jartzea proposatzen da.
- Leku hau oso garrantzitsua da festetan bertan jartzen baitira barrakak: egiten den proiektuak kontuan har dezala.
- Ur-txorrotan parkea osatu beharra dago: eserlekuak eta itzalgunek jarri.
- Ur-txorrotetan txirrista bat jartzea nahi genuke.
- Aldapan mural bat pintatzea proposatzen dugu, ingurunea politagoa izan dadin.

Trafikoa baretzea

- Lehen faseari buruz, frontoi ingurua oinezkoa izatea ondo ikusi da. Halere, kontuan hartu beharko dira jangela eta hileta zerbitzuen beharrak.
- Estaziño kalerako proposamena ere ondo ikusi da. Aparkalekuak kentzeak zalantzak sorrarazi ditu.
- Zubia-Etxaburueta norabide bakarrekoa izatea proposatu dute, igotzeko.
- Bigarren fasea ondo ikusi da. HAPOn garapenak zubi berri bat eraikitzea ahalbidetuko du eta horrela 500 m-tan moztuko da egungo norabide bakarreko kaleek eragindako ibilbidea.
- Txurrukeneko oinezko pasarelak ere erraztuko ditu ibilbideak: ibilgailua erabiltzea baino eraginkorragoa izan daiteke oinez mugitzea.

Gainera:

- Ezinbestekoa da kalitatezko komun publiko sare bat osatzea. Kiroldegikoak, adibidez, badu erabilera kanpotik. Jubilatuen tabernako erabiltzeak ere, publikoa izanik, posible izan beharko luke. Proposatu diren kokaleku berriak:
 - _ Estaziño
 - _ Plaza Berria
 - _ Frontoi ingurua
 - _ Osintxu bidea (bidegorria)





A taldea



B taldea



C taldea



D taldea



E taldea



F taldea



G taldea

Galdetegiak

Haurren eta Nerabeen galdetegia

Proiektua Kodea	Soraluzen Denon Kaleak #G01
Jarduera mota	Diagnostikoa
Data eta orduak Lekua	<ul style="list-style-type: none">• 2024/03-2024/04• Ikastetxean betetako fitxen bitartez.
Partaideak	<ul style="list-style-type: none">• 203 haur eta nerabe (104 neska, 94 mutil eta 5 ez-bitar).
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Herriko haur eta gazteek herriko espazio publikoei buruz dituzten iritziak jaso eta diagnostikoa txertatzea.
Erabilitako materialak	<ul style="list-style-type: none">• Galdetegi fitxa: labur.eus/SOR-GF2
Emaitzak	<ul style="list-style-type: none">• Mapa digitalean jaso dira emaitzak: labur.eus/SOR3



Herritarren galdetegi digitala

Proiektua Kodea	Soraluzen Denon Kaleak #G02
Jarduera mota	Diagnostikoa
Data eta orduak Lekua	<ul style="list-style-type: none">• 2024/03/25 -04/15• Online
Partaideak	<ul style="list-style-type: none">• 28 herritar – 22 emakume – 6 gizon
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Herritarren Foroan jasotako informazioa osatzea, galdetegi digitalaren bitartez.
Erabilitako materialak	<ul style="list-style-type: none">• labur.eus/SOR2
Emaitzak	<ul style="list-style-type: none">• Mapa digitalean jaso dira emaitzak: labur.eus/SOR3

